



Txapel: gitarra eta koroak  
 Paul: bateria eta koroak  
 Auo: ahotsa  
 Toki: ahotsa  
 Txus: gitarra  
 Artrofi: baxua  
 Ñako: soinu teknikaria



**Etsaiak** taldea disko berri batekin dator berriro. 2003an atera zuten euren azken lana eta orain "Apurtu arte" piratazalea argitaratu dute. Etsaiak taldea Lekeitioko gaztetxean sortu zen 1987an. Etsaiak taldeari Paul bateriaren anaia zenak, Jokinek, eman zion hasiera. Etsaiak taldeak mordoa zor dio Jokini eta haren aipamena derrigorrezkoa da gerora Etsaiak izan dena ulertzeko. Auo, Paul eta Iñigito "Txapel" beti mantendu dira eta taldearen bizkarrezurra dira. Euskal Herriko gaztetxe askotan jo zuten, eta 1991n lehen maketa autoekoitzi zuten, "Amen" izenekoa, ondoren, 2003an bermasterizatu eta beste bost abestirekin batera argitaratu dena; hori da, gaur arte, lehen eta azken lanak batzen dituen diskoa. 1992an Esan Ozenki diskoetxearekin atera zuten estraineiko cda: "Etsaiak etsaien". "Apurtu arte" Etsaiak taldearen 8. diskoa izango da, baina tartean baditu Mexikon argitaratutako bildumak, baita VHS bideoak ere.

"Apurtu arte" diskoa Amorotoko Musikorta estudioan grabatu du Paulek 2007ko abenduan. Nahasketak Lamiña estudioan egin dituzte Natxo Libertyk eta Jose Lastrak 2008ko urtarrilean. Magu eta Odei (Des-Kontrol), Laila (Nok) eta Podri (Anarko) lagunek ahotsak sartu dituzte hainbat kantutan. Bi taldekide berri ditu Etsaiak taldeak; alde batetik, lehen ere taldean egondako Artrofik baxua joko du eta, bestetik, Txusek gitarra (Pin Pan Pun Band).

"Apurtu arte" diskoa oso abiadura handian doa. Abesti laburrak, azkarrak, gordinak eta gupidagabeak zintzoak direnekin; latzak, zakarrak, zauri bizikoak, sistemaren zauri gainean pikoa ematen dute, soinu menderaezinak, geldiezinak, sutsuak, oldarkorrak. Kantu bortitzak, inoiz ez epelak. Zuzenak testuetan, okerrik ez musikan. Etsaiak taldearen esparrua punk, hard-core, thrash eta metal soinuean dago. Hamalau kolpe sendo eta trebe, gitarra ezpata bezain sendo eta trebe. Hil ezkilekin bukatzen da diskoa "Ez douz ahaztuko" abestian, Etsaiak taldearen abestirik zaharrenetarikoa, Jokin eta beste hainbaten omenaldi eta gorazarre moduan. Hamalau abestietatik hiru gazteleraz daude.

**1.- Urteetan geldirik eduki duzue Etsaiak norberaren taldeen proiektuak bultzatzeko. Orain "Apurtu arte". Zer zentzutan?**

Ba apurtzera gatzela disko honekin. 5 urte pasatu dira azken diskotik eta kristoren gogoak genituen disko kañero bat atera eta gure "untzi pirata" plazarik plaza ateratzeko. Kontzertu puntual eta potoloak jo ditugu azken bi urteetan eta horrek piztu digu bueltatzeko ilusioa.

**2.- Aurreko diskoekin konparatuz, musika kutsua eta estilo ereduak zabaldu egin duzue.**

Musikalki gure sustraierara jo dugu argi eta garbi. Gure lehen diskoetako abiadura aurkitu dugu eta adarretatik ibili gabe, kanta guztiak enbor berdina dute; KAÑA! Oraingoan argi geneukan denok kantuek tenpo bizikoak eta trailerokoak behar zutela izan, eta sanpler, koro melodiko eta sofistikazioak alde batera utzi eta estilo Etsaiakeroa lortu dugu. Soinu gerreroa atera diogu, bestetan baino gitarreroagoa.

**3.- Piratak behin eta berriz erasoan.**

Aurkezpen kontzertuak hegoaldeko lau hiriburuetan joko ditugu eta beste bat Saran. Gero kontzertu erraldoiak era badira: topagunea, ibilaldia, Araban euskeraz, etab. Ekaina bitartean astebururo ditugu kontzertuak, eta gure untziari azken ukituak ematen gabilta berriz buruezur zapi beltza igo eta matxinadarako prest.

ritxi aizpuru (2008ko martxoaren 6an)

- 1991 "Amen" (maketa, autoekoitzia)
- 1992 "Etsaiak etsaien" (Ezan Ozenki)
- 1993 "Iraultza" (singlea, autoekoitzia)
- 1994 "Presoak SOS" (Ezan Ozenki)
- 1995 "Enemigos del sistema" Bilduma. (Illy Jocker. Mexiko)
- 1995 "Gerra zikina" (Esan Ozenki)
- 1996 "Hamar urte Etsaiak" Bilduma. VHS. (Esan Ozenki)
- 1997 "Bakearen guda" (Esan Ozenki)
- 1999 "Askatasun taupada" (Esan Ozenki)
- 1999 "Sin fronteras-Mugagabe" Bilduma. (Illy Jocker. Mexiko)
- 2000 "Zuzenean 00" (Esan Ozenki)
- 2001 "Kaos" (Metak)
- 2002 "Luzemetraila" VHS (Metak)
- 2003 "Amen + 5 kantuz zaharrenak" (Oihuka)

